

**2017ko irailaren 25etik 30era** bitartean buletinetan argitaratutako interes orokorreko xedapenak (BOE, EHAA, ALHAO, BAO, GAO eta EBEO)

## **I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:**

### **Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2017/09/26**

- 2017ko irailaren 21eko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, eraikuntza eta herri lanen sektoreko hitzarmen kolektiboa erregistratu eta argitaratzen duena. 10951. xedapena -164 or.

### **Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2017/09/27**

- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA.** - Bizkaiko merkataritza orokorreko sektorearen hitzarmen kolektiboa (Hitzarmenaren kodea: 48000565011983). (Akatsen zuzenketa). 1 or.

## **II.- XEDAPEN ARAUTZAILEAK:**

**2017/09/27**

- **PRESIDENTETZAREN ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOEN MINISTERIOA. -Airearen kalitatea. -** PRA/905/2017 Agindua, irailaren 21ekoa, gas fluoratuak eta horietan oinarritutako ekipoak merkaturatu eta manipulatzeara arautzen duen eta horiek erabiltzen dituzten profesionalen ziurtagiria arautu eta gas fluoratuak igortzen dituzten jarduerak gauzatzeko instalazioetarako baldintza teknikoak ezartzen dituen otsailaren 17ko 115/2017 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinak aldatzen dituena. 10960. xedapena - 3 or.

**2017/09/28**

**ENERGIA, TURISMO ETA AGENDA DIGITALAREN MINISTERIOA. - Jarraibide tekniko osagarriak**

- 2017ko irailaren 14ko Ebazpena, Energia Politikaren eta Meatzeen Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baita Meatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorren buruzko ekainaren 9ko ITC/1607/2009 Aginduak onartzen duen 02.2.01 "Lan-ekipoak abiarazi, mantendu, konpondu eta ikuskatzea" jarraibide tekniko osagarriaren 2011-01-17 "Gurpil gaineko bastidore zurruneko iraulkiak ikuskatzea" espezifikazio teknikoa. 11053. xedapena - 78 or.
- 2017ko irailaren 14ko Ebazpena, Energia Politikaren eta Meatzeen Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baita Meatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorren buruzko ekainaren 9ko ITC/1607/2009 Aginduak onartzen duen 02.2.01 "Lan-ekipoak abiarazi, mantendu, konpondu eta ikuskatzea" jarraibide tekniko osagarriaren 17.01.12 "Gurpil gaineko bastidore artikulatuko iraulkiak ikuskatzea" espezifikazio teknikoa. 11054. xedapena -76 or.

**EHA (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)**<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cs2017000013>

**2017/09/25**

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA. - 221/2017 DEKRETUA,** irailaren 19koa, zeinaren bidez garatzen baita enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresarietarako eta profesional autonomoentzako 2017. urterako finantza-babesa. 4585. xedapena.

**ALHAO (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)**

**2017/09/29**

**ARABAKO BATZAR NAGUSIAK.- FORU ARAUAK**

- 16/2017 Foru Araua, irailaren 20koa, zeinaren bidez baliokidetzen baita Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Zerga Bereziaren eta berandutze-interesean sartutako hainbat aldaketa Arabako zerga-araudira egokitzen dituen abuztuaren 3ko 5/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua. 3494. xedapena - 1 or.
- 18/2017 Foru Araua, irailaren 20koa, Arabako zerga-sistema Euskal Zuzenbide Zibilera egokitzen duena. 3497. xedapena - 27 or.

**Kepa Bilbao Zubiaur**

**Tel.: 94 425 25 15 Faxa: 94 423.22.95**

**e-maila: [informacion.juridica@mutualia.es](mailto:informacion.juridica@mutualia.es)**

.....

**MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2**

**HENAO 26 - 48009 BILBO**